## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

789

**56/1990 DEKRETUA, martxoaren 6koa, Euskal Autonomi Elkarteko ehiza eta arrantzarako baimenen eredua ezarri eta hori emateko arauak agintzen dituena.**

Ingurugune Naturalen eta Basa Floraren eta Basa Faunaren Iraunerazpenari buruzko martxoaren 27ko 4/1989 Legearen 35.2 atalean xedatzen denez, Autonomi Elkarteetako aginpidedun ihardute-sailek emandako ehizarako eta lehor aldeko uretako arrantzarako baimenen indarraldia Elkarte bakoitzaren lurralde eremura mugatuko da soil-soilik; eta Indargabetze Xedapenetatik lehenengoaren eraginez, indar gabe uzten da, batetik, ehizari buruzko apirilaren 4eko 1/1970 Legearen 36. atala, baimen mota eta kopuruak arautzen zituena, eta, bestetik, 4/1989 Legean ezarritakoaren aurkakoak izan daitezkeen beste xedapen guztiak.

4/1989 Legea betetzeko, ehiza eta arrantzarako baimenak emateko behin-behingo neurriak ezartzen zituen uztailaren 27ko 174/1989 Dekretua argitaratu zuen Euskal Autonomi Elkarteak. Dekretu honen xedea da, Euskal Autonomi Elkarteko lurralde eremuan ehizarako eta arrantzarako gaituko duten baimenen tankera eta ezaugarriak behin-betiko arautzea; halaber, beste Autonomi Elkarte batzutan ehiza eta arrantza egiteko interesatuta daudenentzat, toki horietako bakoitzean baimena eskatzeko beharrizana kenduko duten bideak ohartematen dira. Hain zuzen, aipatutako Autonomi Elkarteetako aginpidedun ihardute-sailek horretarako izenpetuko dituzten akordio egokien bidez eta elkarganakotasun printzipioa kontuan hartuta, Euskal Herrian baimenak ematen dituzten bulegoek agiri bakar batekin, bertan dena delako Autonomi Elkarteko zigilu ezaugarriak ezarrita, lurralde eremu horietan ehiza edo arrantza egiteko baimena eman ahal izango dute.

Autonomi Elkarte bakoitzaren eskuduntzei zor zaien begirunea gorde nahi da, baina legeei interpretazio estua emanda administratuengan sortuko liratekeen eragozpenak gainditu nahi dira neurri honekin, batez ere Administrazio Publikoen ihardunaren helburuetako bat batzuen eta besteen harremanak erraztea dela jakinda; beraz, interesdunarengandik hurbilen dagoen administrazio ihardute-sailak, horretarako eskuduntzak dituen neurrian, era bateko interesak betetzeko bideak ziurtatu behar ditu, eta oraingo honetan Espainiako Estatuko edozein eremutan ehiza edo arrantza egiteko beharrezko baimenak lortzea litzateke hori.

Ondorioz, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren proposamenez, 1990.eko martxoaren 6an egindako bileran Jaurlaritzako Kontseiluak aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Euskal Autonomi Elkarteko lurralde eremuan eman daitezen ehiza edo arrantza egiteko aukera eskaintzen duten baimenak Foru Aldundietako Nekazaritza Sailek emango dituzte, Dekretu honetan ezarritako arauei atxikiz eta eraskin lez argitaratzen diren ereduei egokituz.

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

789

**DECRETO 56/1990, de 6 de marzo, por el que se establece el modelo de licencia de caza y pesca en la Comunidad Autónoma del País Vasco y se dictan normas para su expedición.**

La Ley 4/1989, de 27 de marzo, de Conservación de los Espacios Naturales y de la Flora y Fauna Silvestres, dispone en su artículo 35.2 que la validez de las licencias de caza y pesca en aguas continentales, expedidas por los órganos competentes de las Comunidades Autónomas, estará referida únicamente al ámbito territorial de cada una de ellas, quedando sin efecto, por la Diposición Derogatoria primera, el artículo 36 de la Ley 1/1970, de 4 de abril, de caza, que regulaba las clases y cuantías de las licencias, así como cuantas otras disposiciones se puedan oponer a lo establecido en aquélla.

En aplicación de la Ley 4/1989, la Comunidad Autónoma del País Vasco publicó el Decreto 174/1989, de 27 de julio, por el que se establecían medidas provisionales en relación con la expedición de las licencias de caza y pesca. El presente Decreto tiene por objeto regular de forma definitiva el formato y características de las licencias que habiliten para la caza y la pesca en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, previendo, al tiempo, mecanismos que vendrán a evitar al interesado la necesidad de solicitar una licencia por cada Comunidad Autónoma en la que pretenda desarrollar la práctica cinegética y piscícola. Así, se prevé la posibilidad de que, mediante los pertinentes acuerdos que con tal efecto se adopten entre los órganos competentes de dichas Comunidades Autónomas, y bajo el principio de reciprocidad, las oficinas expedidoras del País Vasco habiliten con un mismo documento y a través de sellos distintivos de la Comunidad Autónoma de que se trate, a cazar o pescar en dicho ámbito territorial.

Esta medida, dentro del respeto de las competencias propias de cada Comunidad Autónoma, pretende superar los inconvenientes que una interpretación rígida de la legislación crearía en los administrados, máxime cuando uno de los objetivos del actuar de las Administraciones Públicas ha de ser la facilitación de las relaciones de aquéllos con éstas, tendiendo a cumplir el principio de la satisfacción de los intereses de un determinado orden, en este caso la obtención de las autorizaciones necesarias para cazar o pescar en cualquier ámbito del Estado Español, por el órgano administrativo que, con competencias en dicho orden, se encuentre más cerca del interesado.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 6 de marzo de 1990

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Las licencias que habiliten para el ejercicio de la caza o la pesca serán expedidas en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco por los Departamentos de Agricultura de las Diputaciones Forales, de acuerdo con las normas dictadas por el presente Decreto y adoptando los modelos que como anexo se publican.

*2. atala.*— Ehiza edo arrantzako baimenak oinarrizko agiri bat izango du, bertan jabearen nortasun zehaztasunak eta baimenaren indarraldia agertu direlarik; agiri horri, Euskal Autonomi Elkarteko zigilua eta hurrengo atalean aipatzen diren akordioak lortuko diren Autonomi Elkarteetako zigiluak erantsiko zaizkio, horretarako egongo diren laukitxoetan.

*3. atala.*— Ehiza eta arrantzarako baimenak hasiera batean Euskal Autonomi Elkarteko lurralde eremura mugatuta egongo dira, baina beste Autonomi Elkarte batzuetako lurralde eremuan ehiza eta arrantza egiteko aukera eskainiko dute, helburu horrekin Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta aipatu Autonomi Elkarteetako aginpidedun ihardute-sailek ezarriko dituzten akordioen arabera, beti ere ezarrita dagoen legezko prozedurarekin bat etorriz. Honelako kasuetan, interesatuak dena delako Autonomi Elkartean ehiza edo arrantza egiteko baimena eska dezanean, Elkarte horretako zigilua erantsiko zaio oinarrizko agiri horri.

*4. atala.*— Oinarrizko agiriari erantsiko zaizkion zigiluek, horiek eman dituen bulegoeran zigilu-galgarria izarrita izango dute.

Baimenaren indarraldia, oinarrizko agirian berebizi horretarako jarrita dagoen laukitxoan agertzen dena izango da.

*5. atala.*— Foru Aldundiek, ehiza edo arrantzarako baimenak emateko, ariela ezarri eta, horrela denean, kopurua zehazten dutenean, berdina izango da hiru Lurralde Historikoetan.

INDARGABETZE XEDAPENA

Euskal Autonomi Elkarteko ehiza eta arrantzarako baimenei buruzko behin-behingo neurriak ezartzen zituen uztailaren 29ko 174/1989 Dekretua indargabetuta uzten da.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*— Bakoitzaren eskuduntzen eremuan xedapen hau garatu eta ezartzeko behar diren arauak emateko eta ekintzak burutzeko ahalmena ematen zaie Foru Aldundietako Sailei.

*Bigarrena.*— Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den biharamunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1990.eko martxoak 6.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Nekazaritza eta Arrantza Sailburua,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

*Artículo 2.*— La licencia de caza o pesca estará integrada por un documento base en el que constarán los datos de identidad del poseedor y el periodo de su validez y al que se adherirán, en los recuadros que a tal efecto existirán, los sellos correspondientes a la Comunidad Autónoma del País Vasco y a las Comunidades Autónomas con las que se adopten los acuerdos a que se refiere el artículo siguiente.

*Artículo 3.*— Las licencias de caza y pesca cuya validez inicial está limitada al ámbito territorial del País Vasco habilitarán, sin embargo, para cazar y pescar en el ámbito territorial de otras Comunidades Autónomas, en el marco de los acuerdos que a tal efecto se establezcan entre el Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco y los órganos competentes de dichas Comunidades Autónomas, de acuerdo con el procedimiento legalmente establecido. En estos supuestos, se adherirá al documento base el sello correspondiente a la Comunidad Autónoma en cuyo ámbito el interesado haya solicitado autorización para cazar o pescar.

*Artículo 4.*— Los sellos que se adhieran al documento base deberán llevar estampado el matasellos de la oficina expedidora.

El periodo de validez de la licencia será el que figure en el apartado que expresamente se destine a tal fin en el documento base.

*Artículo 5.*— El establecimiento y, en su caso, la cuantía de la tasa que determinen las Diputaciones Forales con motivo de la expedición de las licencias de caza o pesca, será común a los tres Territorios Históricos.

DISPOSICION DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 174/1989, de 29 de julio, por el que se establecen medidas provisonales en relación con las licencias de caza y pesca de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*— Se faculta a los Departamentos de las Diputaciones Forales para dictar las normas y actos necesarios para el desarrollo y aplicación de esta disposición en el ámbito de sus respectivas competencias.

*Segunda.*— El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 6 de Marzo de 1990.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

## ERASKINA / ANEXO

### EUSKADI - PAIS VASCO (1)

LICENCIA DE CAZA .................... NUMERO ..........................
*EHIZA BAIMENA* *ZKIA.*

TITULAR / *TITULARRA*: ..........................................................

DOMICILIO / *HELBIDEA*: ..........................................................

POBLACION / *HIRIA*: ..........................................................

D.N.I. / *N.A.N.*: ..........................

PASAPORTE / *PASAPORTEA*: ..........................

PROV. DE EXPEDICION / *NON LUZATU ZEN*

..........................................................

PERIODO DE VALIDEZ / *INDARRALDIA*

DESDE / *NOIZ DANIK* HASTA / *NOIZ ARTE*

..........................................................

EL EXPEDIDOR
*AGIRI-EMALEA*

(2)

1.°- La identidad del titular deberá acreditarse mediante el D.N.I. o pasaporte.

2.°- Este documento faculta a su titular a cazar, con armas de fuego y cualquier otro procedimiento autorizado incluida la caza mayor, ojeos de perdiz y tiradas de aves acuáticas, en las Comunidades Autónomas cuyos sellos figuran adheridos en los recuadros correspondientes, debidamente estampados con el matasellos de la oficina expedidora.

3.°- El periodo de validez de los sellos, con independencia de la fecha en que hayan sido obtenidos, será para todos ellos el que figura expresamente en el apartado (1) de datos.

1.°- Titularren nortasuna N.A.N. edo pasaportearen bidez frogatuko da.

2.°- Agiri honen bidez baimentzen zaio titularrari ehizatzeko, su-armez edo zilegi dagoen beste edozein baliabidez, bai ehiza handian bai txikian, nahiz eperretan nahiz ur-hegaztietan. Ondoko laukietan agertzen diren tinbreak, agiri-emaleak behar bezala zigilatuak, bezainbeste Autonomi Elkarteetan ehizatu ahal izango da.

3.°- Tinbreen indarraldia, datuak azaltzen diren lekuan (1) berariaz agertzen dena izango da kasu guztietarako, tinbreak noiz ipini diren kontutan izan gabe.

LICENCIA AUTONOMICA DE CAZA
EUSKADI

*EHIZARAKO AUTONOMI BAIMENA*

### EUSKADI - PAIS VASCO (1)

LICENCIA DE PESCA .................... NUMERO ..........................
*ARRANTZA BAIMENA* *ZKIA.*

TITULAR / *TITULARRA*: ..........................................................

DOMICILIO / *HELBIDEA*: ..........................................................

POBLACION / *HIRIA*: ..........................................................

D.N.I. / *N.A.N.*: ..........................

PASAPORTE / *PASAPORTEA*: ..........................

PROV. DE EXPEDICION / *NON LUZATU ZEN*

..........................................................

PERIODO DE VALIDEZ / *INDARRALDIA*

DESDE / *NOIZ DANIK* HASTA / *NOIZ ARTE*

..........................................................

EL EXPEDIDOR
*AGIRI-EMALEA*

(2)

1.°- La identidad del titular deberá acreditarse mediante el D.N.I. o pasaporte.

2.°- Este documento faculta a su titular a pescar todas las especies autorizadas con cualquier procedimiento legal en las Comunidades Autónomas cuyos sellos figuran adheridos en los recuadros correspondientes, debidamente estampados con el matasellos de la oficina expedidora.

3.°- El periodo de validez de los sellos, con independencia de la fecha en que hayan sido obtenidos, será para todos ellos el que figura expresamente en el apartado (1) de datos.

1.°- Titularren nortasuna N.A.N. edo pasaportearen bidez frogatuko da.

2.°- Agiri honen bidez baimentzen zaio titularrari zilegi dauden espezieak arrantzatzeko, legezko den edozein baliabidez lagundurik. Ondoko laukietan agertzen diren tinbreak, agiri-emaleak behar bezala zigilatuak, bezainbeste Autonomi Elkarteetan arrantzatu ahal izango da.

3.°- Tinbreen indarraldia, datuak azaltzen diren lekuan (1) berariaz agertzen dena izango da kasu guztietarako, tinbreak noiz ipini diren kontutan izan gabe.

LICENCIA AUTONOMICA DE PESCA
EUSKADI

*ARRANTZARAKO AUTONOMI BAIMENA*